



Gune bat norberaren ardurapean hartu

Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK.
- PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZA.
- NATUR ZIENTZIAK.

MATERIALAK

- ◆ Ikertu beharreko aldeko mapa (eskala egokikoa).
- ◆ Flora eta faunari buruzko gidaliburuak.
- ◆ Kartulinak.
- ◆ Pinturak eta errotuladoreak.
- ◆ Argazki makina.
- ◆ Alde bat *naturagune babestua* izendatzeko, gaur egun jarraitu beharreko legeriari buruzko informazioa.

HELBURUAK

- Ingurugiroa zaindu eta onbideratzeko ekintzak balioestea, alternatibak bilatzen eta garatzen zuzenean parte hartuz.

Industrializazio prozesuak, hirien hedapenak eta azpiegituren trazatuak izugarri aldarazi dute natur ingurunea azken urteotan. Baina, oraindik ere, tokian-tokian, badira balio natural asko babestu behar direnak. Gune batzuek badute jadanik naturagune babestua izendapena; baina jakin badakigu gure herrietan eta horien aldirietan ere badirela nolabaiteko natur eta kultur balioa duten leku batzuk — txikiak, normalean—; paseatzeko edo aisialdian egoteko lekuak dira, natura, historia eta abarrekiko harremana ahalbidetzen dutenak.




Inguruneke leku bat zeuen naturagune babestutzat hartzea proposatzen dizuegu. Horretarako, honako jarduera hauek gauzatu ditzakezue:

Talde bakoitzak esleitu zaion aldea aztertuko du, eta euren balio natural, historiko, arkitektoniko eta abarreatatik garrantzitsu deritzen lekuak mapan seinalatuko ditu.

Lehenengo urratsa: geure ardurapean har ditzakegun aldeen zerrenda prestatu

Talde txikitik lan eginez hasiko gara. Horietako bakoitzak, aztertu behar duen aldeko mapa beharko du; oso eremu zabala bada, atalka banatuko dugu taldeen artean. Jarduera hori irakasle-laguntzaz egin dezakete, baina lekuan arriskurik ez badago, taldeek euren kasa jardun ahal izango dute.





Bigarren urratsa: hautatutako lekuen aurkezpena eta azken aukeraketa

Talde bakoitzak alde bat aukeratu eta babesteko arrazoiak azaltzeko txosten txiki bat idatziko du. Txostena ona izan dadin, fauna, flora, geologia, paisaia, biztanleek alde hori nola erabiltzen duten, beraren balio historikoak, kulturalak eta abar ikertu beharko dira.

Gero, talde bakoitzak bere proposamena aurkeztuko du eta ikastalde osoak erabakiko du zer gunetan lan egin.

Hirugarren urratsa: informatu

Ondoren, aukeratutako aldearen garrantziaren berri emateko kanpaina egingo dugu. Hona hemen iradokizun batzuk: lekua non dagoen eta bertara nondik joaten den azaltzeko kartelak; inguruaren argazki erreportaje txiki bat; alde hori babespean hartzea zergatik erabaki dugun eta, oro har, bururatzen zaizkigun gauza interesgarri guztien berri emateko kartela.

Herriko edo eskolako aldizkariaren batean iragartzerik badago, ondo legoke haietako arduradunei erreportaje labur bat aurkeztea.



Laugarren urratsa: ekin diezaiogun

Azkenik, eskudun agintarien baita lortuta, aukeratutako gunearen ardura har dezakegu geure gain, lekuaren egoera hobetzen saiatuz; adibidez, zuhaitzak eta zuhaixkak landa ditzakegu edota garbiketa kanpainak, informazio kanpainak eta antzekoak antolatuz.